

438. *Illek piztuko ttik(dizkik) orrek. Oso bizia ta zorrotza denaz esana; baita gauza guztietan jakintsu egiten denaz ere, farrez; baita konseju txarra ematen duenaz ere.*
439. *Illeta aberatsik ez (Albiasu).*
440. *Iruñe(a)n baño Irumberrin kontu geiago. Erri txikitetan aundietan baño kontu geiago erabiltzen zenbait alditz. Irumberri, erderaz Lumbier.*
441. *Ixurraz onda, ta sagar ustela. Ixura ederreko gizona, baño gaixoa ta gaiztoa.*
442. *Isua argituako du orrek. Maltzurkeriaz besteri dirua kendu naiez dabillena.*
443. *Izenez batea, egiñez bestea. Izena ona du, egiñak txarrak.*
444. *Jai ta aste? mal traste! Jai ta aste beti alperlanean ari denazi; baita baita jairik aundienetan ere nekazalgeon dabillenaz.*
445. *Jaiak aste, ni beti izateko gazte. Jai ta aste lana berdin eragiten ziotenak esan zuen ori.*
446. *Jainkoak adur onekoa egin zaitzala (Baratbar). Zintzoa ta bioitz-bera.*
447. *Joanak onik ez, eta etorri(a)k oberik ez. Joan zenak ez, gero etorri zenak are gutxiago.*
448. *Jo ta ke asten da, baño gero a(g)otz-galda. «Lasto-su, laster-su».*
449. *Jostaketa luzi(a)k, azkenetarako negarria. Eta aharra ta liskarra.*
450. *Kaldo-maldo ta zukue nai. Zuku ontzat ematen edo saltzen zuku utsal.*
451. *Kanpoan gozo ta etxean olso (Lekumberri).*
452. *Karratza beti latza, eta asarrea bekain beliza.*
453. *Kontu oil(e)k eta aumtzen gaberdiko eztaile, bik bat.*
454. *Laitxter geigo egiten du dabilten bareak, erbi geldiak baño. Geldi dagonak ez du aurreratzen, eta ez du irabazten aposturik.*
455. *Largazkin onda pasa(r)azi dioi (diote). Estualdi eta ikareria gaitza ikusarazi.*
456. *Larra maldaren alde. Gaiztoa gaiztoaren alde. «Sasia maldaren alde».*
457. *Len zena, gero zena, Beute(Berute)ko Berazena. Zan ark ez dign ezer ekartzen.*
458. *Lerro ari du. Eurria jasa jasaren ondotik ari du.*
459. *Lo(r)ik ez du egin, lo-arnia bakarrik.*
460. *Lore guzik galdu zizki(g)un, zain eta muin. Osofara.*

461. *Magdalen asiea bero? agaka (edo gaztane) gero (Azpiroz, Aldaz). Maria Madalenaren jai utzaren 22'an da.*
462. *Maitatzi, erdie gosenak eta beste erdie oztak.*
463. *Maiz frenok artu bear zatikio. Kontuz ibilili bear da orrekin.*
464. *Marrxoko ostosketak, berrogei eguneko ekatizak.*
465. *Marrxo zarpilletua: ik. konponduko dituk Inotz, Basaburu ta Larraun balteak. Elurrez estaltzen dituela.*
466. *Matsondo onak mais onak: guraso onak aur onak.*
467. *Mari-juan gorri gorri, biar gure atarian eguzki txuri txuri.*
468. *Mendin ez da arbolik, adar i(g)ar bat ez dunik. Ez eta gizon uts gabekorik. Oihenartek: «Zurrai orok, adar eihar» (535).*
469. *Mingañe(a)n ez du erdoirik. Mingain zorrotza du.*
470. *Mizke makurre da dirue. Dirnak esku asko zikintzen ta lapur asko sortzen.*
471. *Muki(r)ik ez, ta pañuloa. Bearrik ez duenak, bi.*
472. *Mundun iru gauza gultzen dire alperrik: pobreren arrazorea (arrazoi), mendiko egur igarria, ta alperrenen indarra.*
473. *Muñek jan ttoi (dizkiote). Azpi-jana egin diote, txorarazi dute.*
474. *Nai baduk ongi bizi, gaurko aparie biarke utzi. Gaurko geiegiakoa biako utzi.*
475. *Naiz kalma, balego modu onak! Ori esan omen zuen mutli zartrak.*
476. *Napar apaizak, iputz itzapez atorra. Iputz apaizak, napar iznupuz atorra (Ultzi). Nork bere tokioa baño besetako naiago.*
477. *Nerea neretzat, zurea biontzat. Olako esku-zabalak ere izaten!*
478. *Nere burue motel ez egiteagarik, soildue atera maiz. Jokuan-edo amorrik ez eman nai, eta diru guzia galdu egin dut.*
479. *Negu(a)n txakurrei jate(r)a ematen ez dianak, udan ez du eperrik jango.*
480. *Negue nola, ardik iltia ala. Ardiei ez zaiela illea moztu bear neguak dirauen arte.*
481. *Nola dago? —Ez il, ta ez bizi. Azkenekotan zegoenaz.*
482. *Nonbait or: 'Nonbait-or'ek egin zun etxea, 'nonbait-or'koa. Alalako, ez anbatekoa.*
483. *Nolako egurre, alako ezpala.*
484. *Non dagon nere gogoa, an dago nere zangoa. Gizonak gogozko dituen gauzetara du joera.*
485. *Norbaitek burro egin dio. Biraoa, maldizioa bota dio. Ori esaten da norbat burutik nasten asi denean. Burro, burho esaten da Lapurdin eta alde aietan emen birao esaten dena. Nola etorri ote da Lapurdiko itz ori Larraun alderano?*

- rena. Ohenartek: «Esku batak ditukzte bertzea, biok begiartea» (157).
1478. *Esperantza aña beldurra*
1479. *Etorri alean gezurre*. Beti gezurretan dabilenez.
1480. *Ez autz eta ez ikatz, idurte*. Ez-baian dabilenez; iduria = ikatz xea (cisco).
1481. *Ezta buruitik maingurik bere aldeko*. Berak nai duenerako buru ona du.
1482. *Geina (geiena) egiten duenak ere, il arte bizi*. Dirurik gelien egiten duenak ere galdu bear.
1483. *Gogozko lekuan aldar(ar) ik ez*. Olatsu esaten da beste lekutan ere.
1484. *Goizean purru-salda, eguerdian aza: aixe kabituako du ipurdian galtza*.
1485. *Goiz gorri, arrats euri: arrats gorri, goiz aize-egualdi*.
1486. *Gosea daukenak, begie argi*.
1487. *Gurre muttikoa, axola guttikoa*.
1488. *Il ta gero, olio-salda*. Gauza bere garaian egin ez denean, gero saiatzea alperrik da.
1489. *Iñork ez du ixila(ra)ziko kararka ori*. Alako itzontzia da.
1490. *Yokalarrien botisak bi zulo*.
1491. *Irabazi duena armonin, galdu duena agonin: nik ere, yoan ez banintz, obe nin (nan)*. Jokuaeren ondorioak: galdu ta gero da muttu, baño beranduegi.
1492. *Irri ta ne(g)arra, munda guzin bearra*.
1593. *Izti aundia du mingañean, orrekin ez fiatu*.
1494. *Katidin, pottolin: ire amak aurra egin din; aur-zapillik (zapi rik) ez, ta katit-larru(a)n bitu din*.
1495. *Katurik nai ez du(t)enen etxean, sugu-arratoiak nagusi*.
1496. *Lurrrak ekarri, lurrrak eraman*. Alperrik galtzen diren gauzez.
1497. *Martin, tortin: gari-biri, ipurdi latz*. Jostaketako izak.
1498. *Nolako bele(a)k, alako bele-kume(a)k*.
1499. *Nolako etreko ande, alako etxalde*.
1500. *Ongi egin, ta gaizki artu*. Esker onik ez erakutsi.
1501. *Orrek lotsak galdu ttu (diu)*. Bere izen onaz ere axolarik ez du.

1502. *Sagor gorri(a)k, barenna usiel*. Itxura ona bai, baño oitura txartrak.
1503. *Santa Luzi-eguna, argitu orduko illuna*. Santa Luzia abenduaren 13'an.
1504. *Txakur txiki(a)k, saunka aundia*.
1505. *Txiki(a)k txikitxo, ta aundi(a)k aunditxo*. Ezin izan, nai litzaiken neurriko.
1506. *Turmoi-urtea, arto-urtea*.
1507. *Urrutiko eltzea betea: alla(g)atu orduko utse*. Urrutiko kontuetan zenbat gezur!

1508. *Zein agiñetan den miña, an da mingaña*. Nor bere kezka edo miñez mintzatzen.
1509. *Zeken utse*.
1510. *Zenbat Juan den, ainbeste Mari da*.
1511. *Zorra duenak, burua makur*. Lotsaren lotsaz.
1512. *Zurren sakelak, bi zulo*.

Ezkurra-ko esaerak

1513. *Aizak zurie, aizak gorrie: zelalan dagonari, atera zaiok begie*. Sorgin edo lamiñen kontuetako izak dire oiek. Ikusi: *José Miguel de Barandiarán*, Eusko-Folklore. *Obras completas*, tomo II, págs. 165 ss.: «Aide txurte, aide gorrie».
1514. *Artoak ontzeko erin bear dire garagarritlean: guk erin gentian (gentium) uziam: orregatik gelditu ziren ez buru ta ez buztan*.
1515. *Aurreak erakutsiko du, atzeak nola dantzatu*. Asko lekutan olatsu.
1516. *Bagindu, bagendukike*. Gauza nai, ta ez izan ordea.
1517. *Berak beretzat, bestean erdibana*. Ala erel erdia bedere uzten dio besteari!
1518. *Eguberritan tibera: iotiez tiberri* / Iote = inauteri.
1519. *Ehur gañetik eldu zen egoak, urkabean zegona ikaratu emen zu(e)n*. Alako aldi batzutan, urak bazter guziak eraman dituelako. Oritik urkahuaren beldurrai!
1520. *Ehur-urte, arto-urte*.
1521. *Errotan beta, bidean trola*. «Errotan lasa, bidean presas».

1522. *Etxeko sua, etxeko autsez estali bear da.* Oihenartek ere: «Etxeko sua etxeko hautsaz estali».
1523. *Etxe uise, gerra uise.* Oihenartek: «Etxe hutsa, aharra hutsa» (171).
1524. *Ez du mingañean aririk.* Irzontzia, edo baita ere izun ona da.
1525. *Iaiak min, guardiak soñu.* Ixillik egon bear lukeña, ori oiñka. Oihenartek: «Idiak erasi beharrean, gundiak» (273).
1526. *Itxure ona da, baño probetxo ohea.* Bai jendetan bai gauzetan maiz.
1527. *Martina karrikari, beiti ola bayabil, ez diñat urrikari.* Berak bere burua galtzen duena ez dugu urrikari.
1528. *Negarrez yaiio, ta negarrez il.* Orixe da guzior izanera.
1529. *Nanu-makilurte, arto-urte.* Nunu = basalandare, makilla luzea duen bat. Izen asko ditu euskeraz: anbulio, kukulumurru, unanu, basaporru, otsapurru.
1530. *Sagar ustel hatak saski sagarra ustelduko.* Kristau lotsagabe bat aski de edozein gaitzakeren kutsua edatzeko.
1531. *Sasian yaiioak sasian nai; gure mandokoak ez du etxera nai.* Olatu beste lekuelan ere.
1532. *Zenbat ale, anbat maratille.* Lenago ere atera zaigu esaera au.
1533. *Zenbat Mari izan, ainbeste Peru.* Ergelak ergela aurkitzen.
1534. *Zor ona baño artzeiko txarra obe.*

Saldias-ko esaerak

1535. *Arbi errea abenduiko, nor bere denborako.*
1536. *Agertiak estali, kampako jendeak ikusiea nai ez dena ankapean kapa estali.* Kampakoen bat zetorreanean, ori esateko oihura omen zen.
1538. *Ardoaren mozkorra baño urarena txarrago.* Onak bein ezaguera galarratzen badu, gizona galduta baita, ito egiten delako noski.
1539. *Ari du, ari du; baño atertuko du.*
1540. *Asura-ko biorra eldu da, bere galgarriñekin.* Asura-mendian lañoa agertzen denean esaten da ori. Galgarin = galgo arin? ega-larin?
1541. «*Balitz*» eta «*bagenduke*» amalan anai omen ziren.


1542. *Baztandarra ta erriionesa, idi ta mando zarraren sal-erostean.* Baztandarrak: *Otzekin ortz-bera, berodkin gelbera; guaiie, Martin, ire idiarekin Erriberan bera.* Erriionesak: *Baztandarrak itz ederrak, almorata kolkoan; billa izkiok mando orteri, zenbat ortz diuen agoan.* Erriionesak deitzen dituzte Erriberakoak.
1543. *Bi etxetako zakurra goseak il.* Ez batean ez bestean jaterra ez ematen.
1544. *Bi yaien biranmonu, ez da guzientzat ona.*
1545. *Bilduriasunak gordetzen du ardanuzea (mastia).* Erderratik itzulia noski.
1546. *Daki(e)nak daki puzkarrak burruntz(i)an sartzen.*
1547. *Demonio filda alamal.* Beste alde batzuitako «arrayo ori!» bezela.
1548. *Denda beti zorretan.*
1549. *Egin zuzenik al da?* Oia galdetzen omen zuen batek.
1550. *Eliza beiti bearretan.*
1551. *Emen eldu diru etxe-yaleak.* Ori esaten omen zen neskatoa jaiotzen zenean.
1552. *Erregul(a)k erregu t'erti ez du kabitzen.* Zein bere neurrian bear dire gauzak.
1553. *Erre ta egosi, nai du(e)nak ikusi.*
1554. *Esnia abartzian, gazura arratsian.* Gauerako gazura ona delakoz ote? edo esnea gauerako nasita gazura antzeko egiten dela?
1555. *Etxeko ipi-apa guziak karpura ateratzen dabil beti.* Ipi-apa = goraberek.
1556. *Ez den lekutik, erregek errementari(r)ik ez.* Ez den lekutik deus ezin atera.
1557. *Gaua egunduz asi dun, gure azkena urbiduz.* Loia galtzen asi denak esana.
1558. *Gazta beratza, zatarrakin tapatua.*
1559. *Gezurra baño anka motza obe.*
1560. *Gizona zertako zartu? Beti gaste bear dik.*
1561. *Gizon alperra, beti lanak egiteko.* Gizon langilleak ezin egin franko.
1562. *Guzama (ugazama), infernuko zama.*
1563. *Guk bearrak, guk bear.* Gerok eraman bear.
1564. *Gure katuak buztana luze, besteak ala datela usie.*

1782. Ni biño (baño) aundiagoa, bano: ni biño txikiagoa, nano.
1783. Nok egin din kafe txar au? Gure amak, irugarren egin-diti(a)n, kafe obia egiten din.
1784. Nolako Maria, alako Joanes.
1785. Nol(a)ko arbol(a)tik, al(a)ko ezpada.
1786. Ogirik oberenu, artoa ezin izana.
1787. Ongi egin, eta esker txarra pago.
1788. 'Orkompon'ek etxea yan zu(e)n: 'zergertare'k egin. 'Orkompon' alfer uisa, 'zergertaere' beti langille.
1789. Sagarmartxo-lore zillar-lore; apiril-lore, urte-lore; maiatz-lore, bat ere ez baño obe. Ikus or gorago eta beste lekuetan ere bai.
1790. San Andres: goizian azaroan, eta arratsian ez. San Andrés aza-roaren 30'an; biaramonean abendua asten.
1791. San Jose, kazkabarra ortzian.
1792. San Juan(e)lan, artuak belia tapatu bear dik. Belca estaltzeko ahalbai azla.
1793. San Juan(e)lan lau sagar ikusi ezkeru, maikoa duk.
1794. San Pedro egunian euri egiten zuenian, negar egiten zuen Labai-(e)n-go andriak. Gaztañak galtzeko beldurrez nonbait.
1795. Su ondoan autsa bueltaka: birramonian elurra. Negu aldeko aize biurriaren atzetik, maiz elurra.
1796. Trinkata Pierreri Edan zaguin, Tomas.
1797. Txanpon baten miña, ta bi sosen lotura.
1798. Urtik ez du(e)n errota, ez du soñurik egiten.
1799. Urruitik ardia: bertara yoañ ta, ez ardi ta ez bildots.
1800. Zakur zarrak sainka aundi(r)tik ez.
1801. Zer erran duk? —Ganz(a) onak bein.
1802. Zigurrañ (edo zurrañ) sakelak bi zulo: Zigurra = zurra, ziko-itza, zekena.
1803. Zozuk beltri: ipur beltz. Zozoak beleari...

Lesakako esaerak

1804. Aize otza, garizuma-dizia. Garizuma beti neguan izaten baita.
1805. Aundi nai, ta ezin izan.

1806. Bereak beretzat, bertzenak erdibana. Jende berekoiak nai du orti.
1807. Dezakenak dezake: ez dezakenak balezake!
1808. Erran, eta egin. Itzemana atxiki, itza ez jan ta ez autsi.
1809. Errezu zuzen ta nik egiten.
1810. Errezua luze, yana labur. Beste errien batean ola esaten dute: «Alako etxean: Errezua labur, yana luze, yornala seguru». Etxe artako morroi-neskameak pozik...
1811. Erronako zubi gainan eskribiturik omen dago: «Bakotzak beria bere».
1812. Ipurdiko gaitza izan du. Kalte edo ezbear aundia.
1813. Yaiotzen denak ilizia zor.
1814. Iaiak nekatu, ta gurdiak negar. Ler gaitzo egiten ari denari, oraindik errieta.
1815. Kanpoko etxiak, eltxiak bete urrez: ondora yoañ ta bat ere ez.
1816. Mendi onek zenbat saski lur ote ditu? —Saskia aundia bada, bat.
1817. Martxoiko izarrak eramán du nere bior zarra. Martxoiko elurri ta otzei beldur...
1818. Nausi onak kabi ona.
1819. Nik zure alaba mañatu? Ori inork ezin ukatu.
1820. Nolako gurasoak, alako umiak.
1821. Nola etorri, ala yoañ. Aise irabazia, aise galtzen.
1822. Nolako pipa, alako toxa. Toxa = pipazalen belar-zorrotoxa.
1823. Nor nolako, izatia alako.
1824. Non da soñua, an da nere zangua.
1825. Ortotsa ari duela(r)tik, ganbarako artuak buelta ematen. Alako asotsa!
1826. Prantzesak erran omen zion itzasoari: «Ezkon adi, ezkon adi: mañstutuko aiz bai.
1827. San Marko: kazkabarra ortzetan.
1828. San Primo egunian urtik egiten badu: berrogei egunez eurria. Egia ote da? San Primo garagarillaren 9'an da.
1829. Subiak, bera bezalako umiak.
1930. Ura yoañ ondoan presak ez du balio.



15. ULZAMA-KO ETA INGURUETAKO ESAERAK

Ulzama-ko eserak

1869. *Aitzeki-maitzeki, lurre baño ustelagoa aiz i. Alferrari ta ordaintzale gezurthari esana.*
1870. *Aize teuri, axarien eztaiek. Azeriak olako eguraldieran erraz arapatzen zer jana. Larraun-en: Aize teuri, azarien pesta.*
1871. *Arbol igarrian aixe egien da egurre. Zarrari eta jende xeari erraz egien zaio farra.*
1872. *Ardi beltzak ez ditu axuri txurie egien. Guraso txarrendandik ume gairtoak aterazen gelsean.*
1873. *Aritz aundiek itzal aundie. Jende aundiak eta aberatsak laguntza aundia eman dezakete.*
1974. *Arraldaka badaazi yendeak bestara. Pillaika, multzuka.*
1875. *Arratsian sagar bai yaten du(e)nak, medikue etxetik ateratzen du. Ori egia baliz!*
1876. *Arri ta sol Orrek deusik ez dik a(d)itzen. Inoren esanik ez du egin nai.*
1877. *Atsa 're gezurre du. Ain gezurria da! Beste nonbaiti: Arnasa aiñe gezur.*
1878. *Aie aiñe marraitil paratuko thu (dihu) onek. Edozertarako aitza-kiak aterako.*
1879. *Atez: zazpi erri ta lau appez. Atez ibarra (valle de Atez) Ulzama ondoan.*
1880. *Autsok ekarko thute (dihuzte) loiek. Ibilleria auek ondorio txarrak ekarriko.*
1881. *Bazko guziek il-zar: ireute (inante) guziek it-berri: errege Salomonek (Absalonek): ez du gose, ez egarri. Illa zelako berria emateko esana.*
1882. *Berrotei urteen traulieran nago.*
1883. *Begi-emanik dauzket neretako pagoak. Begi eman, begiz jo, berexi, aukeratu.*
1884. *Buru gabeak, txapel bearrik ez. Buru edo jakintza-gabea, zertako lotu egin ez dezaken lanbide baiti?*

2057. *Maialza, orzak eta goseak tile*. Ola iltzen diren jendeak ere iza-ki.
2058. *Maipetik xaxtu (txistu, fistu)*. Ori esaten zaio otordura beran-du datorrenari, maipera fistu egitez.
2059. *Martizar adine Yoaues galizazar beti bada*.
2060. *Martin bandin, errege ta sorgin: tipula ta gatz, Martin ipurdi-latz*.
2061. *Martxoan dela Bazko? urte artan arto ta ogi franko*.
2062. *Me-egunian gizen yaten duena, zerurako ez da ona*. Me-eguna = bihileguna.
2063. *Miñek bere gorrena egin du*. Miñak, gaitzak onera eman du, asi da obekitzen.
2064. *Nere onak eta ain onak egin di(r)e*. Nere zorriok iges egin du, lekutu da.
2065. *Nolako toxa, alako pipa*. «Nolako Perutxo, alako Maritxo».
2066. *Nondik aztarnatu dute ori? Gauzarik estalienak ere agertzen. Zer bidez?*
2067. *Non illundu, an ostiatul* Noiz etxeratu ez dakienaz esaten da.
2068. *Non dazua guardasola? —Eixera erdixian (tristean) aterako dut kampa*.
2069. *Norat iguzki, aral buruzki* (Lekarotz).
2070. *Obe da bein gorri, ezen ez beti ori*. Obe da bein zorrotz egin, beti erdizkal baño.
2071. *Odola ez zaio burura iyeinen* (iganen, igoko). Ez da asko estu-tuko, lasaia da.
2072. *Ogi-yorran ari nai ez duenak, olo-yorra arrapatzen du*. Ordu er-diko lana egin nai ez duenari, illabete osokoa sortzen aldi ba-tzuetan.
2073. *Ol guti den lekuen, alki tipia* (Bertizarana).
2074. *Oñaze galantak tut (ditut), eta goxaki apur bet ez!*
2075. *Or dabile klinki-malanka*. Makur samar dabil osasunez edo.
2076. *Ori duk amorratai igerika erakutsi naia*. Irakasle guzien irakas-le egiten bere burua. Oihenartek: «Ahateari igerikan erakastea» (12).
2077. *Ori mullo utzirik*. Ori alde bat urzirik.
2078. *Ori mullo utziko du*. Ori arras aizatuko du.
2079. *Or perma!* Ortixe ikusil, or konpon, Marianoni! ortixe ekini!
2080. *Ortitzak baño ariak luziago bear du*. Amak, irakasleak eta, men-pekoak baño ezaguera ta eramapen (pazientzi) geliago bear. Oihenartek ere ola (703).

2081. *Orrek gaztañek arrako tik (dizkik) eltzetik*. Orrek lanak eman-go ditu.
2082. *Osasuna ta bakial oiek idekiko zeruko aña* (Arizkun).
2083. *Peto gogorra eman diote*. Ustegabeko kalte aundia egin diote.
2084. *Sabaisari aundie du*. Baztan-en maixtarrek, lur landuak nagu-siarekin erdizka badiu ere, bear luken belarra erositea, garesti eldu zai; auxe da sabai-saria.
2085. *Sagar onak erreliste ond*. Erreliste = arrakasta; gauza onak erosle asko izaten, jendea orren bila ibiltzen.
2086. *Sapa gaitze dago*. Sapa bero, sargori, bero itogarria.
2087. *San Gregorio, kazkabarra agoan dago*. San Gregorio martxoaren 12'an (oraintsu arte, orain beste egun batera aldatu dute).
2088. *Tutuluie dantzatuko dik orrek*. Neskatxa orreri ez dio nor-nai ferra egingo.
2089. *Txerritainhe sukaldako zokoa, arto-puske kolkoan*. Negu txarrak bai txerrizaina bai txerriak zokoratzen.
2090. *Xuri ta beltzak aiu tu (ditu)*. Gogorrek esan dizkioite.
2091. *Xurkia alde dute*. Xurkia (ixurkia), urak beren alde daukate, egitekoak ongi doazkie.
2092. *Ubaldiak (ibaia) goitik ez du ekartzen zakarrak bertzerik*. Ibaia azitzen delarik, zakarrak ekartzen dituen bezela, Iruñe al-deirik (goitik) Baztan-a oitura tzarrak besterik ez dela etoritzen (ala esan zidaten Berroetan).
2093. *Ur geldiek salorik aundienak*. Olaxe, den onenak ere, txarkerria aundien bat egiten zaiorean, okerrik aundiena egin lezake.
2094. *Urrungoa urrez, urbillerik lurrez*. Urrungo ezkilliek burrunbe aundie.
2095. *Utsuk gan (yoan), ta sariak eda*. Beranduegi... Axular-ek ere badakar esaera.
2096. *Zikoizkeria garaitzen da beraxtasunaz, bekaizkeria mathetasu-naz* (Erratn).
2097. *Zilo guzian petaxuek baitu orrek*. Zuzen ala makur, guziei eran-tzuten, aitzeakia beti aoan.
2098. *Zirriturik kirtkeka dago*. Zelatan, ikusmihan.
2099. *Zure galizakordak izain du korupilo ori*. Utsarte ori ez ore da zerorrena?